

ELKARBIZITZA IKASgai

Kulturaren arteko harreketarako proposamena

Pertsonak
jasotzea inor
baztertu gabe



Ezkutuko
jaia

UNITATE DIDAKTIKOA



Pertsonak jasotzea inor baztertu gabe



PASARTEA TESTUINGURURATZEN

- Argumentuaren laburpena _____ 4
- Sentsibilizaziorako lema nagusia _____ 4
- Unitate didaktikoaren ikuspegia _____ 4
- Helburuak _____ 5
- Hezkuntza eremu desberdinetarako orientabideak _____ 6

ARIKETAK

A

Sarrerarako eta sentsibilizaziorako ariketak

1. Kontuan hartzen ez nautenean _____ 10
2. Hitzak eratu _____ 10

B

Pasartea aztertzeko ariketak

3. Iritzi orokorrak _____ 11
4. Pertsonaiak _____ 11
5. Harremanak eta erantzunak _____ 12
6. Amaiera _____ 13
7. Zer egoeratan onartzen nauten eta zer egoeratan baztertzen nauten _____ 13
8. Gehien eta gutxien gustatu zaiguna _____ 14
9. Istorioa berridatzi _____ 14

C

Hausnartzeko eta sakontzeko ariketak

10. Paperen jokoa _____ 14
11. Ezagutu, ulertu ahal izateko _____ 15
12. Zer egin etorkinak onartu egiten ditugula sentitzeko _____ 16
13. Nola konpondu gure arteko arazoak _____ 17
14. Zer dakizu itsuei buruz _____ 18

Aurkibidea



O

Hiztegi ariketak

15. Gauzen izenak ____ 19

E

Laburpen ariketak

16. Onarpenaren
tailerra ____ 19

F

Azken ariketak eta
konpromisoa
hartzeko ariketak

17. Onarpenaren
jaia ____ 20

pasartea testuingururatzten



Argumentuaren laburpena

Nerea haserre
dago oso.

Bera izan

ezik, lagun guztiak gonbidatu dituzte
Patrizia Ayalaren urtebetetze-jaira.

Mendekua hartzeko gogoa

baretzeko, bere jaia etxean bertan
antolatzeko erabakia hartzen du,
gurasoen baimena izan gabe.

Arinegi jokatzten duenez, egoera
korapilotsua sortzen du lagun

artean. Azkenean, den-dena konpontzen da, hitz egin
eta gauzak argitu ondoren.

Sentsibilizaziorako lema nagusia

“Pertsonen onarpena, inor baztertu
gabe”.

Unitate didaktikoaren ikuspegia

gero, argi eta garbi dago jende
guztia gure taldeetan onartzeko
gaitasuna garatu behar dugula,

inor baztertu gabe. Inor taldetik kanpo
utbiz gero, porrot egin duela sentitzen
du eta, batzuetan, baztertuak ez du
behar bezala jokatzten.

Norbait talde batetik baztertzen
dutenean, ez dago batere pozik eta,
batzuetan, ezinikusia, gorrotoa eta
mendekua sortzen dira.

Elkarren arteko ezagutzak, elkarriketak eta elkarbizitzako egoera
zailen konponbideak onarpenaren eta ez-bazterketaren bidea
urratzen dute.

Inor taldetik kanpo utbiz gero, porrot egin duela sentitzen du.

“ Inor taldetik
kanpo utbiz gero,
porrot egin duela
sentitzen du.”



Helburuak **Helburu nagusia**

Harreman orekatuak eta konstruktiboak ezarri gizarte-egoera ezagunetan dauden pertsonekin, elkartasunez jokatu eta sexuan, gizarte-mailan, sinesmenetan eta banakako zein gizarteko beste ezaugarri batzuetan oinarritutako bazterketak gaitzetsi.

Hezkuntza helburuak eta helburu didaktikoak

1. Azalaren koloreak, beste etnia batzuetako ezaugarri bereizgarriak... sortutako aldeak errespetatu.
2. Norberaren gorputza onartu eta ondo balioetsi aldeak.
3. Ikasgelako edozein ikaskiderekin lan egin, bere ezaugarriak edo kultura-taldea edozein dela ere.
4. Aukeratu ez diren zenbait bizimoduk eragindako bazterketa-egoera balioetsi.
5. Elkarriketa balioetsi, ikaskideen eta lagunen arteko arazoak gainditzeko.
6. Modu onean begiratu gainerako ikaskideei eta euren balioak zein aukerak ezagutzen ahalegindu, neska-mutikoen artean behar den moduan kontuan hartzeko.

**Modu onean
begiratu ikaskideei
eta euren balioak
ezagutzen
ahalegindu.**





Hezkuntza eremu desberdinetarako orientabideak

Familia: besteek pertsona moduan egindako onarpena da bizitzan zehar gehien gogoratzen den esperientzietako bat. Erkidego

bateko kidea izatea, erkidegoaren onarpena izatea eta gainerakoen konfiantza izatea da pertsonen konfiantza hazteko aukera eskaintzen dien esperientzia.

Hona hemen etxean izan beharreko elkarizketaren gaia, pasartea ikusi ondoren: beste pertsona batzuk onartzeko gaitasuna izatea, nire etxea etxe irekia izatea, beste pertsona batzuekin adiskidantza jokabideak sortzen dituen etxea izatea, batez ere, beste kultura edo erlijio bateko pertsonak direnean edo zailtasun bereziak dituzten pertsonak direnean.

“... nire etxea beste pertsona batzuekin adiskidantza jokabideak sortzen dituen etxea izatea.”

Adiskidetasuna landu, laguntza eman, mesede txikiak egin, pertsonak gutarrak direla sentitzea lortu, euren pentsamendu, sentimendu, ohitura eta jaien inguruko interesa azaldu. Euren kultura partekatu, esperientziak trukatu gurekin...

Gurasook onarpen-batzordea eratu ahal izango genuke Ikasleen Gurasoen Elkartearen, informazioa eta laguntza eman ahal izango genieke, onartu dituen herrialde honetako legeak eta ohiturak ulertzeko, ikuspuntuak trukatu ahal izango genituzke...

Eskola: proposatutako hausnarketa elkarbizitzako bertako aurkako mutur bien erdi-erdian kokatzen da: “onarpena” eta “bazterketa”. Hona hemen ikuspuntu biak: baztertzalearen ikuspuntua eta baztertuta dagoela sentitzen duenaren ikuspuntua.

Elkarbizitzak berak beste pertsonaren lekuan jartzea eta norberaren barrutik, norberaren sentimendu eta emozioetatik ulertzen ahalegintzea du oinarri.

Bestetik, kontrolrik gabeko emozioak gidari izanez gero, jokabidea



traketsa izan daiteke oso... Nolanahi ere, okerreko bidea zuzenduz gero, adiskidetasuna, komunikazioa eta onarpena berreskuratzen dira.

Egoera horiek ulertu, esperientziatik bertatik aztertu eta behar bezala lantzeko jarrera trebatuz gero, onarpenaren eta eskolaratzearen eta gizarteratzearen katea sortuko litzateke: ezagutu, ulertu ahal izateko + ulertu, onartu ahal izateko + onartu, elkarrekin bizi ahal izateko + elkarrekin bizi, bidezko eta elkartasunezko gizartea eraiki ahal izateko.

“... onarpenean izandako esperientzia giltzarria da taldearekin identifikatzeko orduan.”

Aisialdia: pasarte honek onarpena du hizpide. Aisialdian, onarpena bera esperientzia ezin garrantzitsuagoa da jabetza-sentimendua garatzeko orduan.

Neskak edo mutilak aisialdirako talderen batean sartzen direnean, onarpena, laguntza eta trukea den-dena da eurentzat. Onarpenean izandako tankera eta esperientzia giltzarria da taldearekin identifikatzeko orduan.

Hemen, egia bihurtzen da hiru mosketarien esaldia: “Denok batentzat eta bat denontzat”, bai eta beste esaldi hau ere: “Elkarrekin ez gaude bakarrik”.



ESKOLA. Curriculum eremua

Tutoretza

1. Kontuan hartzen ez nautenean ____ 10
3. Iritzi orokorrak ____ 11
4. Pertsonaiak ____ 11
5. Harremanak eta erantzunak ____ 12
6. Amaiera ____ 13
7. Zer egoeratan onartzen nauten eta zer egoeratan baztertzen nauten ____ 13
8. Gehien eta gutxien gustatu zaiguna ____ 14
13. Nola konpondu gure arteko arazoak ____ 17
16. Onarpenaren tailerra ____ 19

Hizkuntza

2. Hitzak eratu ____ 10
3. Iritzi orokorrak ____ 11
4. Pertsonaiak ____ 11
5. Harremanak eta erantzunak ____ 12
6. Amaiera ____ 13
9. Istorioa berridatzi ____ 14
10. Paperen jokoa ____ 14
12. Zer egin etorkinak onartu egiten ditugula sentitzeko ____ 16
14. Zer dakizu itsuei buruz ____ 18
15. Gauzen izenak ____ 19
16. Onarpenaren tailerra ____ 19

Ingurunearen ezagutza

11. Ezagutu, ulertu ahal izateko ____ 15
12. Zer egin etorkinak onartu egiten ditugula sentitzeko ____ 16
16. Onarpenaren tailerra ____ 19
17. Onarpenaren jaia ____ 20

AISIALDI HEZIGARRIA. Tipologia

Soziodramatikoak

10. Paperen jokoa ____ 14
14. Zer dakizu itsuei buruz ____ 18

Kreatiboak

2. Hitzak eratu ____ 10
3. Iritzi orokorrak ____ 11
9. Istorioa berridatzi ____ 14
12. Zer egin etorkinak onartu egiten ditugula sentitzeko ____ 16
16. Onarpenaren tailerra ____ 19

Talde-eraikuntza

3. Iritzi orokorrak ____ 11
16. Onarpenaren tailerra ____ 19

Ariketak



Kooperatiboak

- 3. Iritzi orokorrak ____11
- 8. Gehien eta gutxien gustatu zaiguna ____14
- 9. Istorioa berridatzi ____14
- 11. Ezagutu, ulertu ahal izateko ____15
- 16. Onarpenaren tailerra ____19

Harremanak bultzatzekoak

- 1. Kontuan hartzen ez nautenean ____10
- 4. Pertsonaiak ____11
- 5. Harremanak eta erantzunak ____12
- 6. Amaiera ____13
- 7. Zer egoeratan onartzen nauten eta zer egoeratan baztertzen nauten ____13
- 8. Gehien eta gutxien gustatu zaiguna ____14
- 11. Ezagutu, ulertu ahal izateko ____15
- 13. Nola konpondu gure arteko arazoak ____17
- 14. Zer dakizu itsuei buruz ____18

Jai eta jardunaldiak

- 17. Onarpenaren jaia ____20



A

Sarrerarako eta sentsibilizaziorako ariketak

1. ariketa ~ "Kontuan hartzen ez nautenean"

Pasarteak ikusi baino lehen, ikasleek honako galdera hauei eman ahal diete erantzuna: Nola egongo litzateke, lagunak kontuan hartuko ez balute? Zer egingo luke? Zer irtenbide izango litzuke eskura? Horixe berori beste lagun bati gertatzen zaiola konturatzen banaiz? Nola adierazi ahal dut neure gorputzaren eta aurpegiaren bidez baztertu egiten nautela?

Mimo-antzezpen txikia egin dezakegu.

Ondoren, pasarteak ikusiko dugu.

2. ariketa ~ "Hitzak eratu"


Taldeak guztiek jakin behar dute lankidetzak bera dela garrantzitsua. Izan ere, lankidetzarik gabe ez dago joko hau eta eguneroko bizimoduko jardura asko egiterik.

Azpitaldeak sortu eta zoruan eseri ondoren, begiraleak esleitutako hitzaren letra bat eratuko dute, azpitalde guztien artean hitz osoa eratu ahal izateko.

Gero, eztabaidari ekingo diote eta honako galdera hauek izango dituzte oinarri:

- Zer ikasi dugu hitzen eraketari buruz?
- Erraza izan da letrak eta hitza bera eratzea?
- Nola antolatu dira letrak egiteko; esate baterako "A" letra?





B

Pasartea aztertzeko ariketak

3. ariketa ~ "Iritzi orokorrak"

Lehenengo iritziak: istorioa berregin egingo dugu hasieratik bertatik amaieraraino. Horretarako, arbelean, taula sinoptiko batean, marraztuko dugu zer gertatzen den pasartean. Ondoren, paper itsasgarria erabiliko dugu, hasiera batean, gertatzen diren gauzek zer iradokitzen diguten adierazteko.

Iritzi orokorra: taldeak pasartean gertatutakoari buruz zer uste duen laburtuko dugu orokorrean. "Ideien euria", laburpen-esaldiak egingo ditugu eta adostasun gehien duena aukeratu dugu. Arbelean edo horma-irudian idatziko dugu. Amaieran, berrikusi egingo dugu.

Argumentuaren laburpena: argumentua laburtzen saiatuko gara. Esaldi hori garrantzitsua da oso, taldeak ikusitakoari buruz duen ikuspegi erkidea adierazten du eta.

4. ariketa ~ "Pertsonaiak"

Parte hartzen duten pertsonaien ezaugarriak adieraziko ditugu. Lehenengo eta behin, pertsonaiak nortzuk diren azalduko dugu, nolako ezaugarri fisikoak dituzten, zer ezaugarri dituen euren nortasunak, zeintzuk diren alderdi nabarmenenak.

Pertsonaia	Nolakoa da?	Zer jokabide dauka?	Zergatik du jokabide hori?	Zer deritzozu jokabide horri?	Beste jokabideren bat bururatzeko zaizun?
Nerea					
Ama					
Aita					
Dani					
Elena					
Lagunak					
Auzoko gizona (Zaindaria)					



5. ariketa ~ "Harremanak eta erantzunak"

Ariketa honek taldean bertan egindako elkarrizketa du oinarri.

Pasarteak ikustean burura etorri zaizkien alderdiak aztertzea du helburu.

Era berean, banan-banako lan-fitxa moduan erabili ahal izango litzateke, taldean egin beharreko eztabaidan bertan.

- Nerearen ustez, zergatik ez dute Patriziaren jaira gonbidatu?
- Zer sentitzen du Nereak, jaira gonbidatu ez dutela dakienean?
- Zer egiten du Danik?
- Zer azaltzen dio amak Nereari, egoera ulertu dezan?
- Zer egin nahi du Nereak mendekua hartzeko?
- Nor konbentzitzen du lagundu diezaion?
- Berak den-dena egin nahi du, baina azkenean, agindu gehiegi ematen dizkionez, Dani bera ere gogaitu egiten du.
- Zer egiten du Danik une oro, Nerea arreba konbentzitzeko?
- Zergatik ez diete gurasoek uzten eurek bakarrik etxean bertan jaia egiten?
- Nola erantzuten du Nereak gurasoek ezezkoa ematen dietenean?
- Zer egiten du Danik arreba konbentzitzeko?
- Zein da Nerearen jokabidea, etxean bakarrik egongo dela jakitean?
- Zer eragin du Nerearen jokabidean ezkutuko jaia egiteak?
- Zer jokabide du Nereak gonbidatu dituen lagunekin?
- Zer proposatzen dute lagunak egoera konpontzeko?
- Zer egiten du Danik arreba erabat gogaitu duenean?
- Nola aurkitzen du Danik arreba etxera itzultzen denean?
- Zer proposatzen dio Danik egoera konpontzeko?
- Nola amaitzen da Nerearen eta lagunaren arteko istorioa?





6. ariketa ~ "Amaiera"

Pasartearen amaieran, pertsonaiek nola erantzuten duten aztertu eta geure ondorioak aterako ditugu.

Pertsonaia	Nola erantzuten du?	Zergatik?	Zer esango zenioke?
Nerea			
Dani			
Lagunak			
Gurasoak			

Taldearen ekarpenen laburpen-taula egingo dugu.

7. ariketa ~ "Zer egoeratan onartzen nauten eta zer egoeratan baztertzen nauten"

Onarpenean edo bazterketan dauzkagun sentimenduak izango ditugu aztergai. Horretarako, zer egoeratan sentitu garen onartuta edo baztertuta antzemango dugu eta zer sentitu dugun une horretan.

Onartua	Zer sentitzen dut?	Baztertua	Zer sentitzen dut?

Zer egoeratan onartu edo baztertzen ditugun pertsona jakin batzuk geure gizarte hurbilean, eskolan, auzoan.

Zer pertsona onartzen ditugu?	Zergatik?	Zer egin?	Zer pertsona baztertzen ditugu?	Zergatik?	Zer egin?



8. ariketa ~ "Gehien eta gutxien gustatu zaiguna"

Neska-mutilek gehien balioetsi dituzten pasarteko alderdiak nabarmendu nahi ditugu.

Gehien gustatu zaidana	Gutxien gustatu zaidana

Taula osatutakoan (talde txikitan egin daiteke, edo bestela, arbelean edo horma-irudian, talde handi batean), aztergai dugun gaiarekin zerikusia duten osagaiak nabarmenduko ditugu: onarpena eta ez-bazterketa.

9. ariketa ~ "Istoria berridatzi"

Pasartearen mezua. Zer esan nahi digun. Esaldi edo eslogan batean idatzi pasartearen mezua. Eslogan edo esaldi hori alderatu arbelean alde zurretik idatzitakoarekin. Bizi edo ezagutu ditugun onarpen edo bazterketa egoeren pasarteak edo istorioak azaldu. (Komikia, ipuina, antzezpena... izan daiteke).



Hausnartzeko eta sakontzeko ariketak

10. ariketa ~ "Paperen jokoa"

Paperen jokoa errealitatea aztertzeko teknika da, eta taldea bera bere emozioen eta erantzunen aurrean jartzea du helburu. Zenbait arrazoren ondorioz sortutako onarpen eta bazterketa egoera bana irudikatu behar dute neska-mutikoek (elbarritasuna, hizkuntza, sorterria...).

Taldetan, egoera azaldu, pertsonaiak aukeratu, elkarrizketak





ezarri, eszena prestatu eta egoeraren konponbidea bilatuko dute.

Begiralea edo irakaslea taldez talde joango da, gaia zehazten laguntzeko asmoz.

Taldeka egingo da antzezpena. Taldeen antzezpenen ondoren, antzeztu duten egoera aztertuko dugu gainerako umeekin.

Aztertzeko eskema berbera izango da antzezpen guztietan:

1. Zer antzeztu nahi izan dute?
2. Nolakoa izan da pertsonaien antzezpena?
3. Zer adierazi nahi izan digute?
4. Gure bizitzan gertatu ohi dira halako gauzak?
5. Nolakoa izan ohi da gure erantzuna?

11. ariketa ~ "Ezagutu, ulertu ahal izateko"

Taldeka, beste herrialde edo kultura batzuetakoak izan eta gure inguruan bizi diren pertsonen zerrenda egingo dugu, eta, inguruabar horiek kontuan hartuta, eurei buruz zer dakigun azalduko dugu.

Pertsona	Herrialdea	Kultura	Hizkuntza	Non jaso informazioa

Pertsona horien sorterriari buruzko informazioa bilatzeko, orrialde honetara jo:

<http://www.guiadelmundo.org.uy>





Zer aurkitu duzu?

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-
- 5.-
- 6.-
- 7.-
- 8.-

Zure ustez, zer egin behar duzu onartzeko eta ez baztertzeko?

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-

12. ariketa ~ "Zer egin ikaskide etorkinak onartu egiten ditugula sentitzeko?"

Asmatzaileen tailerra antolatuko dugu eta ekimenak bilatuko ditugu, ikaskide bat gure artean gustura egon dadin. Ikaskidea atzeritarra izan daiteke edo beste hizkuntza edo kultura batekoa, edo hezkuntza-premia bereziak izan ditzake. Ideia guztiak bateratu eta aurreko txantiloiko atalak horma-irudiak izango dira. Taldetan banatuko gara osatu ahal izateko. Iriztiak eman eta zenbait erabaki hartuko ditugu.

Inguruabar horietan...	Zer egin?
Gutako bat dela sentitu dezan	
Hobeito komunikatu dadin	
Bakarrik egon ez dadin	
Azkarrago ikas dezan	
Auzoan integratuta egon dadin	



13. ariketa ~ "Nola konpondu gure arteko arazoak?"

Oso urduri dagoenez eta harremanak nola konpondu ahal dituen ez dakienez, Nereak lagunak etxetik botatzen ditueneko eszenara itzuliko gara.

Egoera antzeztuko dugu.

Egoera aztertuko dugu.

Egoera konpontzeko estrategiak bilatuko ditugu.

Neska-mutikoen bizimoduan ezartzen ahaleginduko gara.

Geure esperientziak azalduko ditugu, adiskidetasuna eta harreman onak berreskuratzeke zer egin behar dugun jakin ez dugunean.

Egoera	Azterketa
1. egoera	
2. egoera	
3. egoera	

Denon artean eztabaidatu eta gure artean ditugun arazoak konpontzeko estrategiak azalduko ditugu.

1. estrategia ...	Egoera:	Zer egin?: ...
2. estrategia ...	Egoera:	Zer egin?: ...
3. estrategia ...	Egoera:	Zer egin?: ...
4. estrategia ...	Egoera:	Zer egin?: ...

Denon artean eztabaidatu eta gure artean ditugun arazoak konpontzeko estrategiak azalduko ditugu.





14. ariketa ~ "Zer dakizu itsuei buruz?"

Pasarte honetan, aurrekoetan bezalaxe, neska itsua da protagonistetako bat. Oso garrantzitsua da itsu batek zer sentitzen duen eta, bere elbarritasuna gorabehera, gure taldeko kidea dela sentiarazteko zer egin ahal dugun jakitea eta ulertzea.

1. Zer bururatzen zaigu?
2. Non jaso ahal dugu informazioa?
3. Nori galdetu ahal diogu?
4. Neska edo mutiko itsurik dago gure ikasgelan, ikastetxean, auzoan?
5. Nola irakurtzen dute itsuek?
6. Nola dabilta kalean zehar?
7. Nola jolasten dira edo nola egiten dute kirola?
8. Zinera joaten dira?

Zer galdera gehiago egin ahal ditugu neska-mutiko itsuen bizimodua nolakoa den jakiteko eta ulertzeko, eta zer egin ahal dugu bete-betean gure ikasgelako edo lagun-taldeko kideak direla sentiarazteko?


Neska-mutiko itsuek sentitzen dutenari buruzko simulazio-ariketa egingo dugu:

Bikoteak osatu eta ibilaldia egingo dugu ikastetxean, aisialdirako zentroan edo auzoan zehar. Bikotekide batek estalita eramango ditu begiak. Beste bikotekideak behar beste azalpen emango dizkio bideko oztopoak gainditzeko (eskailerak, zutabeak, ateak, paperontziak...).

Ibilaldia amaitutakoan, alde zuzenetik prestatutako mezua argituko dugu Braille alfabetoaren laguntzaz (Esate baterako: Zorte on eta aurrera).

Ibilaldia egindakoan eta mezua argitutakoan, erantzuna utziko dute. Ondoren, esperientziari buruz hitz egingo dute.





Hiztegi ariketak

15. ariketa ~ "Gauzen izenak"

Pasartean parte hartzen duten neska-mutikoak herrialde latino batekoak dira. Antioquia eskualdeko kolonbiarrak dira.

Herrialdeek, eskualdeek, hizkuntzek... soinu bereziak dituzte eta sententzioak zein koloreak gogorarazten dizkigute.

Lehenengo eta behin, koloretako marren bidez marraztuko dugu pasarteko neska-mutikoen hizkuntzaren "doinua".

Neska edo mutiko atzeritarren bat ezagutzen badugu, berbera egingo dugu. Apur batean hitz egingo dugu berarekin. Ama-hizkuntzan hitz egiteko eskatuko diogu. Adi-adi entzun eta koloretako marren bidez marraztuko dugu zer gogorarazten digun.

Neska edo mutil horrek berbera egin ahal du gurekin.

Horrez gain, koadro bat egingo dugu soinuak burura ekartzen dizkigun kolore, paisaia eta sententzien bidez.

Erakusketa bat egingo dugu. Koadroen ondoan, zer gogorarazten digun azalduko dugu labur-labur. Denon artean eztabaidatu, azaldu eta oso ondo pasako dugu.

Pertsonak, hizkuntzek eta kulturek sententzioak sortzen dituzte gudan. Horra hor euren aberastasunetako bat.



Laburpen ariketak

16. ariketa ~ "Onarpenaren tailerra"

Unitate honetan jasotako ideia guztiak erabiliko ditugu, beste herrialde batzuetatik datozen pertsonak eta gurekin bizitzeko





orduan zailtasun bereziak dituzten pertsonak onartzeko eskuliburua sortzeko.

Hona hemen “vademecuma”. Hiztegia bilatuko dugu hitz horren esanahia.

Egoerak eta beste herrialde batzuetako pertsonak azalduko ditugu, bai eta gure familian, eskolan, auzoan, aisialdirako elkarteetan, gizarteetan zer egin ahal dugun ere.

Eskolan	Familian	Auzoan	Elkarteetan	Gizarteetan



Azken ariketak eta konpromisoa hartzeko ariketak

17. ariketa ~ "Onarpenaren jaia"

Jaia antolatuko dugu, baina oraingoan, baimena izango dugu. Jai txikia antolatuko dugu elkarteetan (ikasgelan ere bai), ikaskide berri bat etorri dela ospatzeko.

- Nongoa den galdetuko diogu: nolako jaiak ospatzen dituzten, zer jan eta edaten duten bertan, nolako jokoak egiten dituzten...
- Sorterriari buruzko arratsaldea antolatu eta mapak, banderak, esaldiak, argazkiak... jarriko ditugu.
- Zerbait eramango dugu.
- Ongi etorria emateko oparia emango diogu, baina guk geuk egingo dugu.



© EDEX, 2003

Egileak:

Rafael Mendia eta Roberto Flores

Argitaratzailea:

EDEX

 Particular de Indautxu, 9. 48011 - Bilbao

 94 442 57 84  94 441 75 12

 edex@edex.es

 www.edex.es

ISBN:

84-9726-149-6

Obra osoaren ISBN: 84-9726-145-3

Lege gordailua: BI-2499-03

Mod.: 164647

© Edizio honen eskubide guztiak EDEXenak dira, eta bere idatzizko baimena aldez aurretik izan gabe, ez dago lana oso-osorik edo zatika kopiatzerik.

"Gizalegezko kultura partekaturantz doan
eta gizakiaren eskubideetan oinarrituta
dagoen hezkuntzak soilik saihestuko du
desberdintasunek diferentziak sortzea, eta
berezitasunek etsaitasuna ekartzea."

Rodolfo Stavenhagen.
"Hezkuntzak altxorra dauka barruan".
DELORS TXOSTENA. UNESCO

Ekimenaren arduraduna:



Particular de Indautxu, 9
48011 Bilbao
www.edex.es • edex@edex.es

Kolaboratzailea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA
Immigrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Inmigración

